



FUNDACIÓN · FUNDAZIOA

Vital Fundazioaren EZOHIKO laguntza-deialdia, COVID-19ren ondorioak arintzeko Arabako gizartean

Vital Fundazioak, bere helburu eta balioekin koherente izanik, ikuspegi solidariotik eta arabarren aurrerapen soziala, ekonomikoa eta kulturala bultzatuz, laguntzen ezohiko deialdi hau argitaratzen du, COVID-19k Arabako Lurralde Historikoan eragindako ondorioei erantzuna emateko helburuz.

HELBURUA

Arabako Lurralde Historikoan COVID-19k eragindako ondorioei zuzeneko erantzuna emateko garatzen diren irabazi asmorik gabeko ekimen eta proiektuak babestea, honako esku-hartze arlo hauek kontuan hartuta:

- **Gizarte arloa:** jarraian zehaztuko direnei laguntzen eta aukerak eskaintzen dizkieten proiektuak eta jarduerak:
 - Kalteberatasun sozialeko egoeran dauden edo egoteko arriskua duten pertsonak
 - Mendekotasun- edo desgaitasun-egoeran dauden pertsonak, baita haien familia-ingurunea ere (adinekoak, familiak, haurren eta gazteen premiak hezkuntza-arloan, etab.)
- **Lurraldeari laguntzea:** Arabako lurraldearen gizartea eta ekonomia biziberritzen lagunduko duten proiektuak eta jarduerak.
- **Ikerketa eta teknologia babestea:** berrikuntza eta garapen zientifiko eta teknologikoko proiektuak.

PROIEKTUAK GAUZATZEA

Vital Fundazioak **milioi bat euro** bideratuko ditu (**1.000.000 €**), eta aurkeztutako proiektuak eta ekimenak 2020ko abenduaren 31 baino lehen burutu beharko dira.

BALDINTZAK

- Irabazi-asmorik gabeko elkarteentzat eta deialdi honetan ezarritako helburuekin bat datozen eta Arabako Lurralde Historikoan garatzen diren proiektuak aurkezten dituzten erakunde eta profesionalentzat da.
- Elkaratek eta erakundeek legez eraturata eta dagokien erregistroan inskribaturata egon beharko dute, gutxienez urtebeteko antzinatasunarekin.
- Zerga-betebeharretan eta lan-betebeharretan egunean egotea.
- Aurkeztutako proiektua kudeatzeko gaitasun nahikoa izatea.
- Kutxabanken aktibo dagoen banku-kontu baten titularra izatea.

EKARPEN EKONOMIKOA

- Guztira finantzatu beharreko kopuruak, bai Vital Fundazioak ematen dituen laguntzen bidez, bai proiektuak jasotzen dituen beste laguntza osagarri batzuen bidez, ez du gaindituko haren behin betiko zenbateko osoa.
- Emandako laguntza bi epetan ordainduko da, eskatzailea titularra den Kutxabankekoko kontu batean sartuta: gehienez ere, % 75, diru-laguntza ematen den unean lan-kidetzaren hitzarmen bat sinatzen denean, eta gainerakoa, proiektua gauzatu izanaren amaierako memoria aurkeztu eta onartu ondoren. Memoria hori, nolahi ere, 2020ko abenduaren 31 baino lehen entregatu beharko da.

PROIEKTUAK AURKEZTEA

Proiektuak ahalik eta zehatzen idatzita egon beharko dira. **Web orri honetan (www.fundacionvital.eus) ageri den eskabide-inprimakiaren bidez baino ez dira bidaliko**, honako dokumentazio honekin batera:

- Proiektuaren deskripzio osoa
- Aurrekontua
- Proiektua aurkezten duen eskatzaileak orain arte egindako jarduerak eta programak (gehienez 10)
- Dokumentazio osagarria:
 - Zerga- eta lan-betebeharrak egunean dituela egiaztatzen duen agiria
 - Kutxabanken duten kontuaren titulartasuna eta zenbakia jasotzen dituen dokumentua

Laguntza-eskabideak aurkezteko epea 2020ko apirilaren 27an hasiko da, eta 2020ko uztailaren 15a izango da azken eguna.

EBAZPENA ETA HITZARMENA

Vital Fundazioak gehienez ere 15 eguneko epea izango du, aurkeztu eta gero, proiektuak eta eman beharreko laguntzak ebaluatzeko. Ebazpena zuzenean jakinaraziko zaio eskatzaile bakoitzari. Ebazpena positiboa bada, gehienez ere 15 eguneko epea ezarriko da, jakinarazpen hori egiten denetik, Vital Fundazioak eskatzen duen dokumentazio osagarria aurkezteko. Dokumentazio hori epe horretan aurkezten ez bada, eskabidea automatikoki ezetsiko da.

Vital Fundazioak hitzarmen bat sinatuko du laguntzen onuradun bakoitzarekin; emandako zenbatekoak oinarri hauen ekarpen ekonomikoaren puntuan ezarritakoaren arabera ordainduko ditu, eta emandako zenbatekoak erreklamatzeko eskubidea izango du, proiektua amaitzen ez bada edo bertan ezarritako helburuak betetzen ez badira.

Onuradunak proiektua egin izanaren justifikazio osoa aurkeztu beharko du, memoria bat aurkeztuta 2020ko abenduaren 31 baino lehen. Memoria horretan, proiektuaren garapena eta ordaindutako fakturak erantsiko dituen justifikazio ekonomiko bat jaso beharko dira.

